

Gaizka Gabantxo jn.
Lehendakariordea

Javier del Campo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pedro Ochoa jn.
Pilar Ramírez and.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

IRIZPENA 05/01

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2005eko urtarrilaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: *Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoan sartzeko hautespen probetarako deia egiteko agindu proiektuari buruz.*

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio, *Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoan sartzeko hautespen probetarako deia egiteko agindu proiektua*, kasuan kasuko aginduzko txostena eman dezan.

I.- AURREKARIAK

2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzkoa. Izan ere, horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko irakasleen kidegoa sortu zen. Irakasleok musika, dantza eta arte dramatikoko oinarritzko eta maila ertaineko irakaskuntza ematen dute.

Lege horren 16. artikuluan jaso bezala, hezkuntza karrerako funtzionarioak hautatzeko sistema deialdi irekiko lehiaketa-oposizioa izango da.

II.- EDUKIA

Proiektu honek bi artikulua eta azken xedapen bat dauzka. Honekin batera doaz, oinarriak eta eranskin bat, merezimenduak baloratzeko baremoa dakarrena.

Lehenengo artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoan sartzeko hautespen probetarako deia egin da.

Bigarren artikuluan, hautespen prozesuaren oinarriak daude xedaturik.

Azken xedapenean, errekurtsioak aurkezteko epeak ezarri dira.

III.- BALORAZIOAK

EAEko maila ertaineko hiru musika kontserbatorioen LZetan hutsik dauden plazak betetzeko prozesua arautuko duen aginduaren zirriborroa aztertu dugu, baita testu hori hobeto ulertze aldera Langile Sailak igorritako dokumentazioa ere. Dokumentazio horretara ondokoak bildu dira: azaroan, sindikatuei igorritako zirriborroa; sindikatuek aurkeztutako alegazioak; eta plangintza mahaian izandako eztabaida. Izan ere, eztabaida horren ondorioz, abenduaren 22ko zirriborroan –orain aztertuko duguna- aldaketa batzuk egin ziren.

Gure ustez, aurkeztu zaigun agindu proiektua bat dator 334/2004 Errege Dekretuan ezarritakoarekin -hezkuntza sistemako irakaskuntzak ematen dituzten irakasleen kidegoetan eta hezkuntzako ikuskatzaileen kidegoan sartu eta espezialitate berriak eskuratzeko Araudia onesteko Dekretua- eta indarreko gainerako legeriarekin, igorritako memoria azaltzailean zerrendatu den bezala, baina salbuespen bakarra dago, alegia: ezinduentzako plaza erreserbari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea aplikatu da, hots, plazen %3 gordeko da, baina lege horren osteko 2271/2004 Errege Dekretua aplikatu behar izan da, eta bertan, %5 gorde behar dela xedatu da. Bigarren portzentaje hori aplikatuz gero, 1,65 plaza gorde beharko lirateke, baina bat baino ez da gorde.

Eskola Kontseiluak musika irakaskuntzako zentroak antolatzeko prozesuari buruzko txostenak eman behar izan ditu azken urteotan eta orain, prozesu hori amaituko da, irakasleei esleituko baitzaizkie atxikipen prozesuan bete ez ziren plazak.

44 plaza daude kontsignaturik aurrekontuan, baina 33 atera dira deialdi publikora, eta gainerako 7ak gorde dira, plazon egonkortasuna eta izaera bermatzeko.

Gure irudikoz, plazen hizkuntza eskakizunak LZen definizioari egokitzen zaizkio, baina azken aldarazpenaren memoria azaltzailea eguneratzeke dago. (185/2004 Dekretua, 2004/10/29ko EHAA).

Eranskinetan jasotako baremazioa ondo dago zehaztuta.

Hortaz, proposatu zaigun agindu proiektuak Kontseiluaren ikus-onespena dauka, eta Langile Sailari eskertu nahi diogu emandako laguntza.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2005eko urtarrilaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIORDEA,

Iz. Gaizka Gabantxo

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.